

UDALAREN IKASTARO ETA TAILERRETAKO ARAUTEGIA

- Udalaren ikastaro eta tailerrak urritik ekainera bitartean egingo dira (iraupen jakina duten ikastaro monografikoak izan ezik).
- Hiruhileko bakoitzeko 20 ordu izango dituzten ikastaroak eta hiruhileko bakoitzeko 40 ordu izango dituztenak egongo dira.
- Ikastaro bakoitzaren egutegia udalaren web orrian (www.sondika.net) eta Liburutegian argitaratuko da, ikastaroa hasi aurretik.
- Matrikula irailean egingo da, Udal liburutegian. Hileko kultur jardueren aldizkarian jakinaraziko da zein egunetan egin behar den matrikula.
- Beharrezkoa izango da xede horretarako prestatutako inprimakia betetzea; datu pertsonalak, bankuko datuak eta egin nahi den ikastaroari buruzko datuak eman beharko dira, eta hiru hileko ikastarorako edo urtekorako matrikula egin nahi den esan beharko da. Hiru hilabeterako egindako matrikulak Udalak adierazitako epean berriro beharko dira. Epe horren barruan baino ezin izango da baja hartu ikastaroetan.
- Aurreko urteetako ikasleek ez dute lehentasunik izango izena emateko orduan.
- Eskabide guztiak sinatu egin beharko dira (adin txikikoa izanez gero, gurasoek edo legezko ordezkariak), eta, horren bidez, onartu egingo dira bai jarduera horretan parte hartzea bai udal ikastaro eta tailerretako arautegia.
- Prezioak dagokion urteko iraileko kultur jardueren aldizkarian argitaratuko dira. Familia ugariaren hobaria jaso ahal izango da, eskatzaileak matrikulan adierazten badu eta txartelaren fotokopia aurkezten badu.
Haurren taldeetan eta sukaldaritzako ikastaroetan, materiala prezioaren barnean sartzen da.
- Haurren taldeetarako adin-tarteak ezarriko dira; talde batean sartzeko, beharrezkoa izango da matrikula egiten den urteko abenduaren 31rako adin hori izatea.
Gainerakoetan, 14 urtetik gorakoek izango dute parte hartzeko aukera.

NORMAS REGULADORAS DE CURSOS Y TALLERES MUNICIPALES

- Los cursos y talleres municipales se impartirán de octubre a junio (salvo los cursos monográficos de duración determinada).
- Habrá cursos de 20 horas trimestrales y cursos de 40 horas trimestrales.
- El calendario de cada curso se publicará en la web del Ayuntamiento (www.sondika.net) y en la Biblioteca antes del inicio del mismo.
- La matrícula se formalizará en septiembre, en fecha que se determinará en el boletín de actividades culturales del mes, en la Biblioteca Municipal.
- Será necesario cumplimentar el impreso que se facilitará a tal efecto donde se aportarán datos personales, datos bancarios, datos del curso para el que se solicita la matrícula y tipo de matrícula (trimestral o anual). Las matriculas trimestrales se deberán renovar en el plazo que indicará el Ayuntamiento. Solamente se admitirán bajas de cursos dentro de este mismo plazo.
- Los antiguos alumnos no tendrán preferencia al inscribirse.
- Toda solicitud deberá ser firmada (en caso de menores de edad el padre/madre o representante legal) aceptando en este acto la participación en la actividad y las normas reguladoras de los cursos y talleres municipales.
- Los precios se publicarán en el boletín de actividades culturales del mes de septiembre del año en curso. Existe bonificación por familia numerosa teniendo el/la solicitante que hacerlo constar en la matrícula y presentar fotocopia del carnet.
En los grupos infantiles y en los cursos de cocina se incluye el material en el precio.
- Se establecerán edades para cada grupo infantil; debiendo tener cumplidos los años que correspondan a cada grupo a 31 de diciembre del año en que se formalice la matrícula.
En el resto de los cursos podrán participar los mayores de 14 años.

- Eskaintako leku-kopurua baino eskatzaile gehiago badago, zozketa publikoa egingo da, dagokion urteko iraileko kultur jardueren aldizkarian adieraziko den egunean, eta lehenetsua izango dute herrian erroldatutako eskatzaileek.
- Zozketa egin ondoren, ikastaroan sartzetik izan ez duten eskatzaileak itxarotzerrendan geratuko dira, zozketak ezarritako hurrenkeran, eta zerrenda hori indarrean egongo da lekua betetzeko eskaintza publikorik egin ezean.
- Ikastaroa utzi edo ikastaroz aldatu nahi bada, ikastaroko lehen hiruhilekoko lehen hilabetean egin beharko da. Ikastaroz aldatzeko, ezinbestekoa da ikastaroan lekua egotea eta itxarotze-zerrendan inor ez egotea. Kasu horretan, eskaera egindako hurrenkeraren arabera onartuko da.
- Ikaslearen hutsegiteak hiruhilekoko orduen %25 baino gehiago badira eta ez baditu justifikatzen, lekua galduko du.
- Matrikularen dirua osasun-, lan- edo ikasketa-arazoengatik itzuliko da soilik (eskatu ondoren), betiere, behar bezala justifikatuta badago.
- Si hubiera más solicitudes que plazas se realizará un sorteo público, en fecha que se determinará en el boletín de actividades culturales del mes de septiembre del año en curso, teniendo preferencia los/las solicitantes empadronados/as sobre los no empadronados/as.
- Una vez realizado el sorteo los/las solicitantes que no hayan obtenido plaza en el curso en el que han solicitado matricularse, quedarán en reserva, en el orden establecido en dicho sorteo y formarán una lista de espera que será vigente mientras no haya oferta pública de plazas vacantes.
- Se admitirán altas o cambios de curso durante el primer mes del primer trimestre del curso, siempre y cuando hubiera plazas libres y no hubiera reservas en la lista de espera del curso en cuestión. En este caso se aprobarán por orden de solicitud.
- Si las faltas de asistencia superan el 25% de las horas del trimestre sin ningún tipo de justificación supondrá la pérdida de la plaza.
- Solamente tendrán derecho a devolución de matrícula (previa solicitud) aquellas bajas, debidamente notificadas, producidas por causa médica justificada o por causa laboral o de estudios, sobrevenida y justificada.

Sondika, 2015eko uztailaren 7a

Sondika 7 de julio de 2015

Alkatea

Xabier Zubiaur Agirre